



PRENTSA OHARRA

## **Santa Maria Katedralak Arabako Abesbatzak protagonista dituen urteroko kontzertu zikloa hartuko du ostiral honetatik aurrera**

- Arabako Abesbatzen Federazioarekin lankidetzan eta Laboral Kutxaren babesarekin, Santa Mariako Elizpea lurraldeko 20 abesbatzek parte hartuko duten bost kantaldiren agertoki izango da.
- Katedraleko Bisita Zentroan jaso daitezke jada lehen kontzerturako gonbidapenak. Ostiral honetan izango da, 19:45ean, eta Badaya abesbatzak, Lautada koralak, Amalur abesbatzak eta Bihotsak koralak hartuko dute parte.

**Gasteizen, 2023ko maiatzaren 9an.-** Ostiral honetatik, maiatzaren 12tik, aurrera, Santa Mariako Elizpeak Arabako Abesbatzen ordezkariak biltzen dituen musika zikloa hartuko du berriro, 'Kontzertuan eta Irekita' programaren barruan. Arabako Abesbatzen Federazioak bultzatutako eta Laboral Kutxak babestutako ekimenak 20 talde bilduko ditu maiatzean eta ekainean egingo diren bost saiotan.

Inaugurazio kontzertua ostiral honetan, maiatzaren 12an, arratsaldeko 19:45ean izango da, eta bertan Badaya abesbatza, Lautada koralak, Amalur abesbatza eta Bihotsak koralak arituko dira. Hilaren 19an Haritz Hostoa, Vicente Garcia abesbatza, Ahots Argiak eta Enol koralaren txanda izango da. Hirugarren astean, maiatzaren 26an, Mairu abesbatza, Florida abesbatza, Gurasoak koralak eta Dultzinea koralak igoko dira oholtzara. Ekainean dagoeneko, ekainaren 2an, ostiralean, Arantzabelaren, Tantal abestaldearen, Kataliturri abesbatzaren eta Samaniego abesbatzaren txanda izango da. Itxierako kontzertua ekainaren 16an izango da Maiora Canemus, Oskarbi abesbatza, Gasteizko lagunak eta Erribera Beitia taldeekin.

Emanaldi bakoitzerako sarrera doakoa izango da, baina gonbidapenak aurretik jaso beharko dira Katedraleko Bisita Zentroan. Kontzertu bakoitzaren aurreko astelehen eta astearteetan jarriko dira Fundazioko bazkideen eskura, eta interesa duten gainerakoek asteazkenetik aurrera jaso ahal izango dituzte. Aurreikusitako eskaera handia dela eta, pertsona bakoitzeko 2 sarrera baino ez dira banatuko. Kontzertu guztiak Santa Mariako Elizpean izango dira, arratsaldeko 19:45ean hasita.

Kontzertu bakoitzari buruzko informazio gehiago Fundazioaren webgunean: [www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

**FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA**

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · [www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

**Prentsa / Prensa:** Javier Palacios - 628 538 199 - [comunicacion@catedralvitoria.eus](mailto:comunicacion@catedralvitoria.eus)